

19/05 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Ainara Ibañez
M^a Teresa Ojanguren
Iñaki Orbe
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2019ko martxoaren 14ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen lanpostu zerrenda onartzen duen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK

Uztailaren 4ko 186/2017 Dekretu bidez onartu zen EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen lanpostu zerrenda (2017ko abuztuaren 29ko akats-zuzenketarekin).

Geroztik, martxoaren 6ko 34/2018 Dekretu bidez eta apirilaren 24ko 61/2018 Dekretu bidez aldatua izan da (Kontseilu honek bi horiei buruzko irizpenak eman ditu).

Apirilaren 5eko 66/2005 Dekretuak sortzen eta arautzen ditu Hezkuntza bereziko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen hizkuntza eskakizunak.

I. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 3 artikulua, 2 azken xedapen eta 2 eranskin ditu.

1. artikulua Eranskinetako lanpostu zerrendetan egindako aldaketak onartzen ditu.

2. artikulua ezartzen du toki-aldatze lehiaketa izango dela lanpostuak hornitzeko sistema.

3. artikulua dio langileek lanaldi osoko dedikazio erregimena izango dutela.

Azken lehen xedapena errekursoak jartzeko prozedurei buruzkoa da eta bigarrenak dio noiz sartuko den araua indarrean.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Batzorde Iraunkorrek 16/09 Irizpena egin zuen EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen 2016/17 ikasturteko LPZ onartzen duen Dekretu proiektuari buruz eta irizpen bana egin zuen Dekretuak geroztik izan dituen bi aldaketei buruz (18/01 eta 18/03 irizpenak).

Gure irizpenpean jarri den dekretu proiektu honek hirugarren aldiz aldatzen du LPZ. Hauek dira aldaketak:

- 40 plaza berri sortzen dira: hezkuntza-laguntzako 36 espezialista (HLE), 2 fisioterapeuta eta 2 terapeuta okupazional.
- Sortuko diren HLEko hiru lanpostu derrigortasun-datarik gabeko 1HEdun lanpostuak dira, hiru epai exekutatu direlako zeintzuek dioten hiru langileak lan-kontratudun langile mugagabeak izango direla lanpostua araudiaren arabera bete arte.
- Bestalde, proposatzen da HLEko derrigortasun-datarik gabeko bi 1HEdun posturen ezaugarriak aldatzea, bi epaiak exekutatu daitezkeen, eta horretarako, lanpostuen jomuga-ikastetxea aldatzea.

Taula honetan jasota daude indarrean dagoen LPZ eta proposatzen diren aldaketak:

<i>Jomugak</i>	<i>2015-16</i>	<i>Aldaketa</i>
Fisioterapeuta	30	32
Gizarte langilea (Desagertzear)	3	3
Hezkuntza laguntzarako espezialista	650	686
Okupazio-terapeuta	8	10
Material transkribatzailea eta egokitzaila	4	4
Zeinu hizkuntzako interpretea	4	4
LPZ organikoa guztira	699	739

LPZ funtzionalari dagokionez, 2018-19 ikasturtean lanaldi osoko HLEko 796 plaza egon dira eta, gainera, lanaldi erdiko 189 kontratazio egin dira. Berrikuntzako Zuzendaritzaren memorian adierazi bezala, aldaketa hori gertatu da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak nabarmen ugaritu direlako, batik bat, hezkuntza-laguntza espezializatuari dagokionez. H.p.b.k dituzten eta LPZ honetako figura profesionalen bat esleituta duten ikasle kopuruaren bilakaera oso esanguratsua izan da azken 2 urteetan, koadro honetan ikus daitezkeen bezala:

Irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileak esleituta dituzten eta h.p.b.k dituzten ikasleen bilakaera.

	2017-18	2018-19
Hezkuntza laguntzarako espezialista	2.126	2.286
Fisioterapia	753	788
Okupazio-terapia	1.051	1.162

Batzorde Iraunkorrak begi onez ikusten du irakaskuntzaz besteko langileen LPZ organikoan 40 plaza gehiago sartzea, horrek esan nahi baitu irakasleen egonkortasuna hobetuko dela.

Bestalde, nahiz eta ez dagoen dekretuaren aldaketa honetan esplizituki jasota, LPZn baziren desagertzekotan diren 3 gizarte langile plaza. Nola plaza horiek epe laburrean amortizatuko diren (funtzio horiek garatu dituzten langileek erretiroa hartuko dutelako), ahots asko goratu dira esanaz figura hori beharrezkoa dela.

Orain arte 3 gizarte langile plaza zeuden: bat Bilboko Artatse HLHIn eta bi Arabako A01 eta A02 Berritzeguneetan.

Euskadiko Eskola Kontseiluko presidentek bilera bat egin zuen 2018ko urriaren 15ean kolektibo horretako bi ordezkarekin, zeintzuek azaldu zioten zein den beren lana eta lan hori aldarrikatu zuten. Era berean, Kontseiluak hainbat txosten jaso ditu postu horiek mantentzearen alde: Arabako Berritzeguneetako hezkuntza premia berezien koordinatzaileenak, Artatse HLHiko zuzendariarenak eta Arabako Sareaneko koordinatzaileenak. Eusko Jaurlaritzako hezkuntza batzordeak ere iritzi bera eman zuen 2017ko abenduaren 4ko saioan.

Berritzegune horietako h.p.b. koordinatzaileen memoriatik ateratakoaren arabera, "egunero aurkitzen ditugu ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak eta zailtasun horiek lotura zuzena dute eskolaz haragoko egoerekin (egoera sozio-familiar oso konplexuak, genero indarkeriazko egoerak, eskubide urraketak edo haurren babesgabetasuna). Horregatik, ezinbestekoa da etengabe koordinatzea adin txikikoen babes sistemekin eta osasun, justizia eta herrizaingo sistemekin. Koordinazio horretarako beharrezkoa da solaskide espezializatuak izatea hezkuntza sistemaren barruan, gizarte zerbitzuen sistema konplexua ongi ezagutzen duten profil profesional espezifikoak dituztenak, horrela bermatzeko informazioa modu egokian tratatzen dela."

Horregatik, Kontseiluak proposatzen du, lehenik eta behin, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta ematen dieten ikastetxeetan dauden eta sor daitezkeen premien analisi bat egitea eta, batik bat, hiru gizarte langileen lana aztertzea, baloratzeko profil hori edo beste batzuk diren beharrezkoak (gizarte hezitzailea, gizarte integratzioko LHko teknikaria edo kasu bakoitzean definitu daitezkeen beste batzuk), eta horrela egokitzeke ikasle guztien premia espezifikoetara eta ikastetxeen eskaeretara.

Gainera, zenbait ikastetxetako egoera gero eta konplexuagoa denez, uste dugu beharrezkoa litzatekeela figura hori izatea, alde aurretik txosten batekin justifikatuta eta urtero beste txosten bat eginaz figura hori ebaluatzeko eta bere erabilgarritasuna aztertzeko.

Azkenik, honako hau LPZri egiten zaion hirugarren aldaketa denez, Kontseiluak uste du eskatutako analisiak egin ondoren LPZ berri bat egin beharko litzatekeela, lanpostu kopurua egokituz, profil berriak sartuz –beharrezkoa bada-, eta egungo premiei erantzuten ez dietenak ezabatuz, hau da, plantillak arrazionalizatuz ikastetxe bakoitzeko premia zehatzen arabera.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2019ko martxoaren 15ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Nélida Zaitegi

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA